



Larrialdi  
plana

**bizkaia**

norabide berri  
bati ekiteko

**ehbildu**

---



<b>0.</b>	Sarrera	4
<b>1.</b>	Sistema publiko sendoa	4
<b>2.</b>	Udal finantzazioa indartzea eta zerga sistema aldatzea	5
<b>3.</b>	Ekonomia sustatzea: tokiko garapena sustatzea	6
<b>4.</b>	Euskal kultura eta sortzaileei bultzada	7
<b>5.</b>	Genero ikuspegia duen Aldundia	8
<b>6.</b>	Klima aldaketaren aurkako borroka	8
<b>7.</b>	Lehen sektorea berpiztea	8
<b>8.</b>	Mugikortasun jasangarria	9
<b>9.</b>	Makro-proiektuen berrazterketa	9
<b>10.</b>	Turismo jasangarria	9
<b>11.</b>	Neurriak finantzatzeko bideak	10

## 0. SARRERA

Hurrengo hilabeteak erabakigarriak dira COVID-19ren ondorioz sortutako krisiaren kudeaketan. Alde anitzetara begiratzuz kudeatu beharreko garaiak izango dira: alde batetik, krisiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko premiazko neurriak hartu behar dira. Bestetik eta berehala, etorkizuna prestatu behar da, politika publikoei ikuspegi berri bat aplikatuz. Premia larriei aurre egiteaz gain, transformazio-bektore bat aktibatu behar da, sistemaren akats larriei eraso egingo diena eta gaurtik hasita garapen eta gizarte-ongizateko eredu berri baten oinarriak eraikitzen hasiko dena. Berehala jaiki, norabidea zuzendu eta ibiltzen hasteko. Lehenengo gauza zutik jartzea da.

COVID 19ak eragindako krisiak argi erakusten du EH Bilduk Bizkaiko Batzar Nagusietan 2020ko aurrekontuetarako egindako proposamen eta emendakinek norabide egokia marrazten zutela. Krisi honetatik irteteko betiko errezetek ez dute baliorik izango, eredu berri bat sustatu beharra dago.

Epe laburrera, ezinbestekoa da Bizkaiko Aldundiaren 2020ko aurrekontuen birformulazioa egitea. Eta baita diru-sarrerak handitzeko behin-behineko neurriak hartzea ere, Covid Tasa esaterako. Baina epe ertainera begiratu beharra dago, eta zerbitzu publikoak sostengatzeko diru-sarrera nahikoak izateko ezinbestekoa dugu egungo zerga-sistemaren aldaketari ekitea.

Pertsonak zentroan jarriko dituen lurralde berri bat eraiki beharrean gaude, erronka globala dela jakinda ere, herri gisara merezi dugun proiektu propioa eraikiz. Horretarako 10 puntutan oinarritutako proposamena garatu dugu: Sistema publiko sendoa, udal finantzazioa sendotzea eta zerga sistemaren aldaketa, ekonomia sustapena, euskal kultura eta sortzaileei bultzada, genero ikuspegia duen Aldundia, klima aldaketaren aurkako borroka, lehen sektorea berpiztea, mugikortasun jasangarria, makro proiektuen berrazterketa eta turismo jasangarria.

## 1. Sistema publiko sendoa

Salbuespenezko egoera honek agerian utzi du, zaintza-lanetan aritzen direnen bizkarrean zama handia izateaz gain, babesgabetasuna eta ahultasun soziala ere, diskurtso instituzionaletatik eta krisiari aurre egiteko iragarritako neurri handietatik kanpo gelditu direla. Ekonomiaz hitz egiten dugunean, zaintza ekonomia ezin dugu alboratu. Ildo horretatik, gizarte zerbitzu publikoak bultzatzeak, sortzeak, indartzeak enplegu duinak sortzeko bidea dela uste dugu. Hor kokatu beharko litzateke gizarte ekintzako baliabide ezberdinen publikazioa, prozesu graduala izan behar dela jakinik, ezinbestekoa da bide horretan pausuak ematen hastea, esate baterako:

- o Egoitza-sarea eta eguneko zentroak publikatzeko prozesua abiarazi, GUFEn bidez (adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, adingabeak).
- o Bitartean, premiazko neurriak hartu:
  - zerbitzuaren kalitatea hobetzeko (bereziki, ratioak handitzea eta ikuskapen gehiago egitea)
  - enpresa pribatuek adinekoen kontura negozioa egin ez dezaten neurriak hartzea, ematen zaien diru publikoaren erabilpena kontrolatuz.
- o Gizarte Ekintzak hainbat zerbitzu emateko egindako kontratuak ez luzatzea:
  - Mendekotasuna ebaluatzeko zerbitzua ez luzatzeko 2020ko abendu arte baino gehiago, publikatzeko prozesua hasteko.
  - Menpekotasun egoera dauden adinekoentzako ohe kontzertatuen kontratua, 2020ko abenduaren 31n amaitzen dena, ez luzatzea.
  - Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Zerbitzua emateko langile publikoak kontratatzea

- o Garraioak ere bere izaera publikoa berreskuratu behar du, multinazional handiek menderatutako emakiden egungo sistema alde batera utziz. Bizkaibuseko sei emakidetako baten hurrengo lizitazioa (Uribe Kostata eta Ezkerraldea-EHUKo 11 lineak) Aldunditik zuzenean kudeatutako garraio-sistema bat berreskuratzeko proba pilotu gisa erabil daiteke.

## 2. Udal finantzazioa sendotzea eta zerga sistema aldatzea

### 2.1. Udal finantzazioa

Osasun-krisiak, zalantza barik, eragina izango du arlo sozioekonomikoan eta baita diru-bilketan. Jadanik sumatzen ari da diru-sarreraren jaitsiera. Diru-bilketa gaizki joan denean galtzaile handienak udalak izan ohi dira baina oraingoan ezin dugu horrela jokatu. Udalek herritarrei eman behar dituzten zerbitzuak bermatuta egoiteko finantzazio nahikoa bermatu behar zaie.

EH Bilduk Madrilen PSOE eta Podemosekin sinatutako akordioak jasotzen duenez, “Toki-erakundeek, foru-erakundeek eta erakunde autonomikoen gastu-ahalmen handiagoa izango dute COD-19aren krisiak eragindako ondorio sozialak arintzera bideratutako politika publikoetarako”. Akordioan honako hau ezartzen da: “Toki-erakundeentzat, gizarte-politiketako gastu horiek gastu-arauaren zerbaketatik salbuetsita egongo dira”. Madrilgo Gobernuak lehenbailehen gauzatu beharko luke akordioan ezarritakoa, Bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak bermatu behar du:

- o 2019ko Udalkutxaren likidazioari dagozkion 26 milioi € udalen esku uztea, udal bakoitzak erabakitzen duenaren arabera.

- o Udalek dituzten gerakinen erabilpena zabaltzea, udalek Covid-19 birusak sortutako ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren inbertsio sozialak egin ditzaten.

- o Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko aurrekontuetarako finkaturiko tokiko erakundeek bete beharreko egonkortasun, zor eta gastuaren helburuak malgutzeko beharrezkoak diren lege-aldaketak egin ditzaten urratsak eman behar ditu, udalek hartu beharreko neurri sozialak hartu ahal izateko.

Hortaz gain, ez-ohiko neurriak ere hartu beharko dira udal finantzazioa bermatzeko:

- o Bizkaiko Foru Aldundiko Sail ezberdinek, 2020ko aurrekontuetan zehazturiko udalenzako diru-laguntzen lerroak ez murriztea eta hurrengo ekitaldietan indartzea.

- o Diru-bilketaren murrizketaren ondorioz, Bizkaiko udalek Udalkutxa eta Gizartekutxa funtsen bidez jasotakoaren zati bat itzuli beharko balute, itzulketa hori urte ezberdinetan gauzatzeko aukera ematea, moratoria epea ere aurreikusiz.

### 2.12. Zerga sistemaren aldaketa

Bizi dugun egoeran gure erakundeen finantza eta zerga-sistemaren garrantziak inoiz baino zentralitate handiagoa du. Oinarrizko zerbitzuak eskaintzeko, osasun arloan, hezkuntza arloan edo kulturaren, gure ehun ekonomikoa berpizteko edota kaltetuenen gizarte-beharrei erantzun ahal izateko gure erakundeen finantzen sendotasuna beharrezkoa da.

EH Bilduk defendatzen duen zerga-sistemak herritarren oinarrizko premiak asetzeko adina baliabide biltzea du helburu, non gehiago dutenen ekarpena handiagoa izango den. Hau da, progresibitate printzipioan eta benetako gaitasun ekonomikoa zergapetzea helburu duen zerga-sistema defendatzen dugu. Horretarako hurrengo neurriak hartzea proposatzen dugu:

- o Gure lurraldeko zerga-presioa Europar Batasuneko Euroguneko batz besteko portzentaira hurbiltzeko neurriak aztertzea: zerga ezberdinetan dauden hobari eta kenkariak berrikuspena egitea, eta beharrezkotzat jotzen direnak, soilik, mantentzeko proposamena aurkeztea, zerga-gastuak murrizte aldera.

- o Zerga-elusioaren eta iruzurraren kontrako borroka areagotzeko:
  - Zerga ezberdinetan elusiorako egon daitezkeen bideak ixtea. Horien artean, Sozietateen Gaineko Zergen hobariak eta kenkariak murriztu eta kenkari guztiontzako muga orokorra ezartzea.
  - Iruzurraren aurkako behatoki independentea sortzea.
  - Bitarteko pertsonal eta tekniko gehiagoz hornitu dezala Ogasun Saila.
- o Sistemaren progresibitatea bermatze aldera:
  - PFEZean lanaren eta kapitalaren diru-iturriak era beretsuan zergapetzeko bidea irekitzea, oinarri bakarrerako bidea jorratuz, eta zerga-tarifa progresiboa ezarri.
  - Aberastasun Haundien Zerga ezartzeko prozesua hastea. Bitartean Ondarearen gaineko Zergaren erreforma bultzatzea, zerga-ekutua indargabetzeko eta familia-partaidetzak neurri batean zergapetzeko.
  - Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergan, lehen mailako ahaidetasunean salbuespena muga dezala eta progresibitate printzipioa ezarri dezala.
  - Sozietateen gaineko Zergan ahalmen ekonomikoaren arabera zergapetzeko, mozkin handienak dituzte- nek aparteko ekarpena egiteko bidea zabaltzea.
  - Beste zergak (Ondare Eskualdaketaren gaineko Zergan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga; Jokoaren gaineko Zerga; Zerga bereziak; ...) berraztertzea.
  - Aldundiak zerga guztiak arautzeko eskumena eskuratzeko beharra mahai gainean jartzea Ekonomia Itu- naren Batzorde Mistoaren hurrengo bileran.

### 3. Ekonomia sustapena: tokiko garapena bultzatzea

COVID-19k sortutako krisiak ondorio larriak izango ditu enpleguan eta enpresetan. Langabeziak nabarmen egin du gora azken hilabeteetan, eta aurreikuspenak nahiko kezagarriak dira. Enpresa txiki eta ertainak, autonomoak, merkataritza txikiak, industriaren eremuko enpresak, ziurgabetasun handiko egoera dute aurrean. Horren aurrean ondoko neurriak ezartzea proposatzen dugu:

- Autonomo, denda txiki, ostalaritza eta tokiko turismoa laguntzeko neurriak:
- o Jarduera horiek sustatzeko diru-laguntzak ezartzea, Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurrien osagarri gisa.
- o Bizkaiko Foru Aldundiak udalei ahalbideratu behar die udal zergen eta tasen %50eko salbuespena arautzea, itxitako merkataritza-lokalen jabeentzat eta %25ekoa gainerako guztientzat, lokalaren jabea negozioa ustiatzen duena bada.
- o Txartel bidezko ordainketetan banku-komisioak etetea, ordaintzeko modu hori seguruagoa baita une honetan. (Hau ez da BFaren eskumena, Madril Gobernuarena baino, baina ABP sartuta dugu).
- Tokiko garapena bultzatzeko eta sendotzeko neurriak:
- o Bizkaia Orekan Sakonduz Plana indartzea, Behargintza eta Toki Garapeneko erakundeen bidez, eskualdeetan enplegua eta lana sustatzeko.
- o Tokiko garapenaren barruan, zaintza-ekonomia garatzea. Ildo horretatik, diru-laguntza berri bat zabaldu gizarte-ekimeneko enpresak sortzeko, zaintza-lanak modu komunitarioan eta kooperatiboan egiteko.

- o Bizkaiko Foru Aldundiak aterako dituen bonoak, herrietako edo auzoko dendetan inbertituko direla bermatzea.
- o Langabeziari aurre egiteko Enplegu Plan Berezia:
  - Langabetu-sektore ezberdinei zuzendutako formakuntza berezia eskainiko duena, Hezkuntza Sailean eta Lanbiderekin elkarlanean, sexu-estereotipoak apurtzeko formakuntza eskainiz.
  - Epe motzeko neurriak hartzeaz gain, epe ertaineko ikuspegia landu beharko duena, kalitatezko enpleguaren alde eginez eta enplegu-nitxo berriak bultzatuz, hala nola, ekonomia zirkularra, trantsizio eko-energetikoa eta zaintza-ekonomia.
- o Egoera larrienean dauden eskualdeen garapenerako proiektuak indartu eta zabaldu:
  - Enkarterriko Berraktibazio Plana eta Ezkerraldea-Meatzalderako Plan estrategikoa indartu.
  - Durangaldean Lehiakortasun Poloa eta Zientziaren Parkea bultzatu
  - Arratiako Industria Plana abian jarri
- o Zerga arloko neurriak hartzea tokiko merkataritzaren alde:
  - Merkataritza elektronikoaren zerga-ezarpena areagotzeko premiazko akordioa
  - Saltoki Handien gaineko Zerga ezartzea.

#### 4. Euskal kultura eta sortzaileei bultzada

Euskal kulturak eta kultura-industriak, salbuespenen bat izan ezik, oso baldintza eskasetan jarduten du eta horrek are ahulago bihurtzen du krisi-egoeretan. Kultur proiektu asko desagertzera behartuak egongo dira, batez ere euskaraz sortu edo garatzen direnak. Zenbat eta txikiagoa izan konpainia, sortzailea, proiektua edo enpresa, orduan eta zalantzarriagoa da etorkizuna. Krisi honek hutsune handia sor dezake, eta egoera horrek urteak iraun ditzake, gure ekosistema kultural osoari erantzungo dioten premiazko neurri sendoak hartzen ez badira.

- o Kultur kontsumoarentzat pizgarriak ezarri (antzerkia, zinema, liburu-dendak, etab), saltoki txi-kiei eta pertsonen ekonomiari laguntzeko bono-denda anizkoitza bultzatuz. (Jaiki Plana).
- o Establezimenduen gastu finkoak: Izaera publikorik ez duten antzokiek, sorkuntza-espazioek, zinema-aretoek, kultura-establezimenduek, liburu-dendek, kultura-prestakuntzarako espazioek eta abarrek 2020tik 2021era atzeratu ahal izango dute tasen ordainketa. Aldundiari eskatu ahal izan-go diote itxi diren merkataritza-lokalen jabeek OHZren %50eko salbuespena aplikatzeko, eta gai-nerako guztiei %25ekoa. Beti ere lokalaren jabea bada hura ustiatzen duena (Jaiki Plana)
- o Bertoko kultur ekoizpena eta beren beregi euskarazkoa programatzen duten eragileei zuzendutako diru-laguntzak indartu /handitu.
- o Sorkuntza eta ekoizpen artistikorako diru-laguntzak handitzea.
- o Gauzatu ezin izan diren jarduerak ez eteteko konpromisoa.

## 5. Genero ikuspegia duen Aldundia

Abian dagoen konpromisoa, hau da, gero eta programa gehiagotan genero-ikuspegia txertatzeko konpromi-soari eustea eta hurrengo ekitaldietan programa gehiago sartzea bultzatzea.

Genero ikuspegia zehar-lerro bezala txertatu behar da Aldundiaren aurrekontuetan eta bere politiketan. Horretarako Aldundiaren Sail guztiek gutxienez %1 bideratu behar dute Berdintasun politiketara. 2020ko aurrekontua helburu horretatik oso urrun dago. Hauek dira helburu hau lortzeko garatu daitezkeen ekimenak:

- o Berdintasuna, Gizarteratzea eta Enplegu Sailean beharrezkoa da indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako laguntza-sarea indartzea (plazak gehitzea, plantilla handitzea, laguntza psiko-logikoaren zerbitzua lurraldean hedatzea) eta prebentzio neurriak bultzatzeak
- o Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Foru Arauaren garapenari ekitea, atzerapen gehi-agorik gabe.
- o Zaintzailearen Estatutua birplanteatzea perspektiba feministan oinarrituta.
- o Gizarte Zerbitzuen azterketa burutu, ikuspegi feminista txertatuta.

## 6. Klima aldaketaren aurkako borroka

Klima larrialdiari aurre egiteko politikak aldatu behar dira: ingurumenekoak, hondakin-politikak, baso-politikak, kontsumokoak, mugikortasun-politikak eta abar luze bat. Sail ezberdinek inplikatu behar dira klima larrialdiari aurre egiteko, Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Saila, bereziki. Arlo honetan proposamen zehatzak egiten ditugu:

- o Sortutako hondakinak osotasunean era selektiboan jaso ahal izateko ekintzak garatzea.
- o Konpostatzeko plantak eskualdeetara zabaltzea.
- o Bertoko baso eremuak birsortzea eta handitzea edota produkzio aniztasuna bultzatuko duen Na-turatik Gertuko Basogintza erabiltzea, bertoko espezieak ustiatuz, biodibertsitatea eta lurraren emankortasuna berreskuratuz.

Klima aldaketaren kontrako borroka zehar-lerroa da, proposatzen ditugun neurri askok (mugikortasuna, turismo jasagarria, eskualdeen garapena edota lehen sektorea bultzatzeko neurriak, esate baterako) erronka honekin zuzenki lotuta daude.

## 7. Lehen sektorea berpiztea

Klima-larrialdiari aurre egiteko ezinbestekoa dugu tokiko elikadura-sistemak sortu eta bultzatzea. Km 0-ko kontsumoa da bultzatu eta indartu behar dena. Elikadura burujabetzarantz urratsak eman behar ditugu klima larrialdiari aurre egin nahi badiogu. 2020ko aurrekontuan ez zegoen hori bultzatzeko neurririk. Hori dela eta honakoa proposatzen dugu:

- Elikadura sistema lokalak sustatu: Baserritarren eta arrantzaleen aldeko neurri ekonomiko eta fiskalak hartzea.
- Bertoko produktua zirkuitu laburretara bideratu: denda txikiak, merkatu eta feriak, adibidez.
- Azpiegitura eta zerbitzu publikoak sortzea lehen sektoreak dituen arazo estrukturalak konpontzeko: hiltegiak, transformazio eta despieze gelak, erosketa publikoa bertoko produktuetara bideratzea, ordezkapen zerbitzua, banaketa katean sortutako balioaren banaketa ez bidezkoari buelta ematea.



## 8. Mugikortasun jasangarria: garraio publikoa, bizikletaren sustapena, bidegorri sarea

Mugikortasunari dagokionez, apustua ezin da izan auto pribatuaren erabilera berriro bultzatzea. Errepideetan inbertitzetik mugikortasun jasangarria bultzatzera pasatu behar gara. Garraio publikoak, bizikletak eta oinezkoek kaleak har ditzaten neurriak sustatu behar dira. Zehazki:

- Hiriarteko mugikortasuna bultzatu behar dugu, oinezkoentzako eta bizikletentzako korridoreen bidez.
- Banakako ibilgailu jasangarriekin joan-etorriak bultzatzea (bizikleta eta patinetea).
- Herri eta hirien arteko autobusen joan-etorria erraztu, errei eskusiboak edo lehentasunezkoak eskainiz.
- Bizikletaren erabilera lehentasunezko garraiobide gisa bihurtzea:
- Bizkaiko Bidegorrien Sarea osatu.
- Bizikletentzako aparkaleku estalien eta seguruen sarea sortzeko azterlana egitea eta udalei diru laguntza ematea.
- Bizkaibusen eta Metro Bilbaon sortuko den diru-sarreraren defizita bermatuko duten aurrekontu-neurriak sustatzea.

## 9. Makro proiektuen berrazterketa

COVID 19ak sortutako larrialdiak eta krisiari aurre egiteko ezinbestekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen azpiegitura eta ekitaldi handien eredia birplanteatzea. Garraio eta mugikortasun iraunkorraren proposamenei lotuta, ez da azpiegitura handien garaia.

- Super-Sur, Lamiakoko ibai azpiko tunela edota OIL&GAS proiektuak bertan behera uztea. Proiektu horiek bertan behera uztearekin 43 milioi euro bideratu ahalko lirateke bestelako neurrie-tarako.
- Nazioarteko ekitaldi handiak sustatzeko partidak ezabatzea (Eurokopa kasu). Guztira bideratzen diren 15 milioi euroetatik 10 milioi bestelako neurriak sustatzera erabili ahalko ziren.
- Kanpo-sustapeneko publizitatea eta propagandaren murrizketa.

## 10. Turismo jasangarria

COVID-19ak sortutako egoerak gertuko turismoa eta turismo jasangarria sustatzeko beharra areagotu du. Bizkaiko lurralde osoan turismo jasangarria bultzatzeak eragin positiboa izango du segurtasunean. Ereku turistiko masifikatuek jende pilaketak eta kutsadura sortzen dute, eta beraz, ez dira egokiak egun bizi dugun egoerari aurre egiteko. Turismo jasangarria bultzatzeko partidak turismoaren kanpo sustapenerako kanpainen zenbatekoak gutxituz finantzatu daitezke. Gaztelugatxeko parkingera aurreikusitako milioi euroko partida ere turismo jasangarria bultzatzeko bideratu ahalko litzateke.

## 11. Neurriak finantzatzeko bideak

Pandemiaren ondorioz, diru-sarrera fiskalen jaitsiera handia aurreikusten da, baina ondorio latz horri ere aurre egin beharko diogu. Gastu publikoaren beharrak ez datoz bat aurreikusitako diru-sarrera fiskalekin.

Bizkaiko EH Bilduk hiru bide planteatzen ditu hemen planteatu ditugun neurriak aurrera eramateko:

### 1. COVID TASA

Premiaz behar ditugun politika publikoak ezartzeko behar adina baliabide bermatzeko zerga-neurri gehigarriak eta salbuespenezkoak aplikatzea ezinbestekoa da. Fiskalitate progresiboago eta bidezkoago bati buruzko beharrezko eztabaidarekin batera, COVID Tasa delakoa ezartzea proposatzen da, honako ezaugarriak izango dituen:

- Aldi baterakoa eta ez ohikoa: COVID Tasa onartzea proposatzen da, fiskalitate berri progresiboago eta ekitatiboago bat ahalbidetuko duen zerga-erreforma sakon bat egin bitartean; izan ere, aurre egin behar ditugun krisi ekonomikoa aurrekoa baino gogorragoa da, eta ahalegin publiko handia egin beharko da denboran zehar.
- Partziala: COVID Tasa hori egungo zerga-arauketaren esparruan zerga-tasa altuenei aurre egin behar dieten pertsona eta enpresei soilik aplikatu dakiekeela proposatzen da, horiek baitira, hain zuzen ere, erosteko gaitasun handiena duten pertsona fisiko eta juridikoak, eta beraz, pairatzen dugun salbuespenezko egoera honetan ezinbesteko ekarpena egin beharko dutenak.
- Esanguratsua: Nahiz eta progresiboki eta zergen artean aldeak egonik, pertsona fisiko eta juridiko horien ekarpenak gaur egun egiten dutena baino nabarmen handiagoa izan behar duela uste dugu.

Ezaugarri horiek kontuan hartuta, proposatzen dugun COVID Tasa aplikatzeak honako hau ekarriko lukeela:

- Errekargua PFEZaren tarte altuenetan.
- Aurreko ekitaldiarekin alderatuz %10etik gorako kontabilitate-irabaziak izan dituzten enpresa ertain eta handien gainordaina Sozietateen gaineko Zergaren zerga-tasan.
- Gainordaina Ondarearen gaineko Zergaren zerga-tasetan, eta benetako progresibotasuna bermatzeko ezku-tu fiskala kentzea.
- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan zerga-tasen errekargua.

Aurreratutako bezala, diru-sarrerak COVID Tasa honen bidez kalkulatzeko azterketa ekonomikoa egin beharko litzateke.

### 2. 2020ko ekitaldiko gastu-aurreikuspenak aldatzea

a) Marko proiektuen berrazterketaren bidez:

- Super-Sur, Lamiakoko ibai azpiko tunela, Gaztelugatxeko parkinga edota Ezkerraldea/Meatzaldeko enpresa-parkean egin nahi den Oil&Gas eraikina egiteko proiektuak bertan behera uztea. Proiektu horiek bertan behera uztearekin 46 milioi euro bideratu ahalko lirateke bestelako neurrietarako.

- Nazioarteko ekitaldi handiak sustatzeko partidak ezabatzea (Eurokopa kasu): 2 milioi

b) Bizkaian nazioartean saltzeko publizitatea eta propagandaren murrizketa: 8,5 milioi

c) Zehaztu gabeko partida handiak murriztea, bereziki, Ahalduen Nagusiaren Kabineteko programetan: 2 milioi

### 3. Zerga-erreforma gauzatzea

a) Ondarearen gaineko Zerga: Zerga-ezkutua kentzearen bidez, 59,25 milioi € (2020ko zerga-gastuetan estimatuta)

Zerga-barkatze hori egiten zaie ondare gehien dutenei. 2017ko datuen arabera, ezkutuaren ondorioz, ia 68 milioi euro barkatu ziren, horien ia bi heren (%65,15), 44 milioi, barkatu zitzairen 12,8 milioi baino ondare gehiago duten 147 bizkaitarrei, OZ ordaintzen dutenen %2. Eta ia kopuru osoa (%90,5) barkatzen zaie 6,4 milioi euroko ondarea baino gehiago dutenei.

b) Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergan, likidazio oinarri bakarra ezarri, Likidazio oinarri orokorra eta Aurrezkiaren likidazio oinarria batuz. Aurrezkiaren kasuan, tipoak %20 – %25 dira, Likidazio oinarri orokorreko tipoak, %23 – %49 tartean doazen bitartean. Hau da, aurrezkiaren tipo gehienak azpitik daude. Parekatuko bagenituzke tipoak, 215 milioi € lortuko genituzke (2017ko PFEZen datuetan oinarrituta).

c) Sozietateen gaineko Zergan, azken kontrarreforma erabaki zen tipoak jaistea, 2018an 2 puntu eta 2019an, beste bi puntu. 2019ko ekitaldian, ez badugu tipoa jaisten, 42 milioi € gehiago izango genituzke.

d) Gastu fiskalak murriztea. 2020ko aurrekontuetan, gastu fiskalen ondorioz, jasotzen ditugun 8 € etatik 3 € “barkatzen ditugu”, hau da, denetara 3 mila milioi € jaso gabe uzten ditugu. Kenkari horiek ez dute berdin eragin zergadun guztietan eta askotan progresibitatea apurtzen dute. Gure proposamena da kenkari horiek errebisatzea eta beharrezkotzat jotzen direnak soilik uztea.

